EHU

BEGIRUNE

ESPAZIO FISIKOAREN ERABILERA ETA ONDARE PUBLIKOAREN ZAINTZA

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), unibertsitate publikoa den aldetik, bizitza akademikoa eta soziala gidatzen duten balio hauetan oinarritzen da: **ondasun publikoen erabilera arduratsua, errespetua, pertsonen zaintza, balio demokratikoak eta jasangarritasunarekiko eta ingurumenaren zaintzarekiko konpromisoa.**

Konpromiso horrekin bat etorriz, eta Begirune parte-hartze prozesuaren bidez hezkuntza-komunitate osoaren ekarpenak jaso ondoren, honako jarduketa-protokolo hau diseinatu da, bitartekaritzan eta ikuspegi leheneratzailean oinarrituta, unibertsitate-komunitatean errespetua eta erantzukidetasuna sustatzeko.

Propagandari eta informazio-materialei buruzko printzipio orokorrak

Campusean **kartelak, pankartak edo bestelako informazio-materialak** jartzeko, honako printzipio hauek hartuko dira kontuan:

- **Unibertsitateko kolektiboen adierazpen- eta parte-hartze eskubidea,** pertsona guztien eskubideak eta bizikidetza demokratikoa errespetatuz.
- **Pertsonen segurtasuna, zaintza eta ongizatea,** osotasun fisikoa edo unibertsitate-jardueraren ohiko garapena arriskuan jar dezaketen arriskuak, oztopoak eta egoerak saihestuz.
- **Ondasun publikoekiko eta pertsonekiko errespetua,** baliabide publikoekin finantzatutako instalazioak eta altzariak hondatzea saihestuz, baita pertsonen duintasuna, eskubideak edo sentsibilitatea urratzen dituen edozein jarduera ere.

- **Unibertsitateko espazioen erabilera ordenatua, espazioak gehiegi bete gabe,** jarduera akademikorako ingurune garbia, irisgarria eta egokia bermatuz.

- **Jasangarritasuna eta ingurumen-erantzukizuna,** hondakinen murrizketa eta materialen erabilera arduratsua sustatuz.

I. Propagandaren edukia

EHUren jarduna **pertsonen eskubideen errespetuan, balio demokratikoetan eta adierazpen-askatasunaren defentsan** oinarritzen da. Unibertsitatea eztabaidarako eta iritziak kontrastatzeko espazio publikoa da, eta bertan askotariko iritziak adierazteko aukera egon behar da.

Hala ere, eskubide horiek ezin dira erabili beste pertsona batzuen eskubideak urratzeko, segurtasuna arriskuan jartzeko edo espazio komunak hondatzeko.

Beraz, **ez dira inola ere onartuko** honako ezaugarri hauek dituzten **kartelak, pankartak edo materialak:**

- Pertsonak edo kolektiboak zuzenean **mehatxatzen edo seinalatzen dituztenak,** unibertsitate-komunitateko kide izan zein ez.

- **Pertsonen duintasuna, osotasun morala edo oinarrizko eskubideak urratzen dituztenak,** edo sentsibilitateak mintzen dituztenak.

- **Jazarpena, gorrotoa edo bazterketa sustatzen dituztenak.**

II. Propagandaren iraupena

Antolatutako jardueren zabalkundea errespetatzeko eta **espazioen erabilera ordenatua bermatzeko:**

- Deialdi zehatzak iragartzen dituzten kartelak mantenduko dira, betiere **ekitaldiaren aurreko hiru asteetan, gehienez, jarri badira.**

- Ekitaldi zehatzei lotutako kartelek **data adierazi beharko dute.**

- Ez da onartuko **materialak denbora-mugarik gabe bertan uztea,** ezta espazioak mezu errepikatuekin gehiegi betetzea ere.

- Ezarritako irizpideak betetzen dituzten kartelak eta pankartak, oro har, **ostiraletan** kenduko dira (salbu eta laster egingo diren jarduerak iragartzen dituztenak, betiere I. eta III. ataletan ezarritako irizpideak betetzen badituzte).

Irizpide horien helburua jardueren zabalkundearen eta espazioen erabilera ordenatuaren arteko oreka lortzea da.

III. Propaganda kentzea

Zentroek ezarritako prozeduren arabera eta erabilgarri dauden baliabideak kontuan hartuta, **ahalik eta azkarren kenduko dira** jarraian zehazten diren materialak:

- Edozein gainazaletan egindako **pintadak edo esprai bidezko markak.**

- **Horretarako prestatutako espazioetatik kanpo** jarritako kartelak.

- **Gainazalak hondatzen dituzten materialekin** itsatsitako kartelak (hormak, ateak, komunak, altzariak edo bestelako elementuak).

- **Tamaina handiko pankartak** edo barandetatik, pasabideetatik nahiz campuseko beste elementu batzuetatik zintzilik daudenak, askatuz gero sor dezaketen arriskuagatik.

- **Beiretan, leihoetan, beirazko ateetan, barruko terrazetan edo EHUren seinaleztapen instituzionalean** jarritako kartelak edo propaganda.

- **Pasabideak, sarbideak, irteerak, eskailerak, arrapalak edo zirkulazio-eremuak oztopatzen dituzten materialak,** baita lurrean jarrita istripuak eragin ditzaketenak ere.

Jarduketa horiek aldian-aldian egingo dira, **unibertsitateko espazioen erabilera ordenatua, segurua eta egokia** bermatzeko.

Aldi berean, EHUk **adierazpen grafikorako berariaz baimendutako espazioak prestatuko ditu, betiere ondare publikoaren zaintza, pertsonen segurtasuna eta unibertsitate-ingurunearekiko errespetua** bermatzen badira; halaber, **elkarrizketa-prozesu bat abiatuko du** unibertsitatean dauden talde eta kolektiboekin, kartelak eta horma-irudiak jartzeko kanpoko euskarriak aztertu eta indartzeko.

Irizpide horien helburua segurtasuna, espazioen zaintza eta adierazpen-eskubidearekiko oreka bermatzea da.

IV. Erabilitako materialaren kudeaketa

EHUren ingurumen-konpromisoarekin bat etorriz, kendutako materialaren kudeaketa **jasangarritasun-irizpideetan** oinarrituko da.

- Kendutako materiala ez da berehala hondakin bihurtuko; aitzitik, **birziklatzea sustatuko da.**

- Espazio komunetan jarritako propagandari dagokionez, ezarritako irizpideak betetzen baditu, **bi astez egongo da kolektibo arduradunen eskura,** jaso ahal izan dezaten.

- **Papera, plastikoa eta bestelako materialak gutxiago erabiltzea** sustatuko da, aukera jasangarriagoak bultzatuz.